



LEHENDAKARITZA DEPARTAMENTUA

JARDUERA NAGUSIAK

Administrazioa
Gure Geroa proiektua
EPE 2001
Prebentzio, kalitate eta ingurumen sistemen kudeaketaren automatizazioa

Administrazioa:
ADMINISTRAZIOA MODERNIZATZEA

2002. urtean Foru Administrazioaren zerbitzuak teknologia berrietara egokitzeko prozesuak aurrera jarraitu du eta hori Administrazioa Batzordeak bultzaturik eta Gipuzkoa ekimenarekin bat etorrita.

Informazioaren tratamendu, komunikazio eta segurtasunerako azpiegituren atalean, *segurtasun-planari* ekin zaio, datuetarako sarbidearen kontrolerako eta auditoriarako sistemen garapena hasi aurretik diagnostikoaren fasea bukatuta.

Foru aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren informatika-elkarteek Izan, S.A. sozietate publikoa eratzeko prozesua ere amaitu da. Sozietate hori EAEko administrazio-esparruan egiaztapen digitaleko zerbitzuak emateko xedez sortu da. Halaber, Informatika Zerbitzuen Foru Elkarteari (IZFE) zerbitzu telematikoetan erabilgarriak izan daitezen kreditatze elektronikoen beste sistema batzuk erabiltzea ahalbide dezan zerbitzu telematikoaren plataforma bat garatzeko ardura eman zaio, baita Toki eta Foru Administrazioaren WAN sarea hedadura zabalera aldatzeko ere.

Azpiegituren horniketari dagokionez, Koldo Mitxelenako Areto Nagusiaren ekipamendu berria guztiz jarri da. Besteak beste, areto horretan izan daitezen saiok grabatzeko, artxibatze eta Internet bidez emititzeko sistemak.

2002. urtean HABEren erregistroan inskribatutako euskaltegiak ekipamendu informatikoz hornitzeko prozesua ere bukatu da, euskaltegiak Habenet sarearen eduki hezitzaile digitaletara sartu ahal izateko laguntzen bigarren fasearekin, hain zuzen ere.

Prestakuntzarako eta ezaguerak partekatzeko eduki digitalen garapenaren edo sarbidearen atalean, enplegatuentzako telepres-takuntza-eskaintzan aplikazio mikroinformatikoak eta hizkuntzak ikasteko kurtsoak sartu izana azpimarratu beharra dago, baita *laneko arriskuaren planaren* zabalkunderako eta kudeaketarako

Intranet bidezko plataforma bat garatu izana eta kirol teknikarientzat prestakuntza-ikastaro birtualak eman izana ere.

Sareko zerbitzu publikoen garapenaren atalean, Foru Aldundiaren webgunean (www.gipuzkoa.net) beste eduki eta funtzionaltasun batzuk sartu dira, besteak beste, hauek egitea ahalbidetzen dutena: Foru Ogasunarekiko zerga-eragiketa jakin batzuk egitea, Ekonomia Departamentuaren laguntzetarako eskabidea eta horien jarraipena egitea, udalekuetarako, eskola-kirolerako eta gazteentzako beste kanpaina batzuetarako izena ematea eta departamentuek emandako zerbitzuei buruzko izaera tekniko eta juridikoko informazioa *Zerbitzuen Gidaren* bidez.

Era berean, Departamentuak udalei eta toki-entitateei laguntzak emateko lerro bat ireki du, zerbitzu publikoetara zuzendutako interneteko atariak garatzeko eta hobetzeko. Dagoeneko 74 dira ekimen horretaz baliatu diren entitateak.

www.kirolak.net

Gipuzkoako kirolari dagokion informazioa modernizatzeko eta digitalizatzeko jardueren artean, joan zen ekitaldian www.kirolak.net atari telematikoak hasi zen lanean. Interneteko atari horrek, Gipuzkoako kirol federazioekin elkar-lanean, gure lurralde historikoko kirolari buruzko hainbat zerbitzu eta eduki eskaintzen ditu. *Kirolgela Birtualaren* lehen eduki hezitzaile birtuala prestatzeko jarraibideak ere ezarri dira. Ekintza hauek Aldundiko Kultura eta Kirol Departamentuaren ekimenez eta horrekin elkarlanean burutu dira.

GURE GEROA PROIEKTUA:
KALITATE HANDIAGOA, ZERBITZU HOBEA

2001eko maiatzetik, hausnarketa estrategikoaren prozesu bati ekin zaio, funtzio publikorako etorkizunari begirako proiektu partekatu bat burutzeko. Prozesu hori da hain zuzen ere *Gure Geroa proiektua*. Iazko urtearen amaieran funtzio publikoaren etorkizuneko ikusmoldeak, haien oinarriko helburuak eta helburu estrategikoak eta helburuok lortzeko ekintzen plana onartu ziren.

2002. urtean proiektua zehaztuta, lantaldea egiteko, pertsonen kudeaketa integrala burutzeko eta modu proaktiboan aurrea hartzeko helburuen arabera eta etengabe burutzeko izango da proiektua. Horrek esan nahi du,

etorkizunean, proiektuak herritarren beharrei erantzun ahal izateko Aldundiaren gainerako departamentuek dituzten premiei erantzungo diela eta horrela dago jasota funtzio publikoaren arloan Aldundiko gobernu-programaren helburuetan. Hona hemen helburuok:

- _ Administrazioaren hobekuntzei eta erreformari bultzada ematea: Administrazio modernoa, dimentsio egokietakoa, irekia, harbera eta parte-hartzailea.
- _ Kalitateko zerbitzuak ematea kudeaketa garden, on eta eraginkor baten bidez.
- _ Lan egiteko metodoak eta prozedurak etengabe berrikustea.
- _ Pertsonalaren parte-hartzea eta konplizitatea: motibazioa, lan-giro egokia, politikak, prozesuak eta zerbitzuak definitzeko eta gauzatzeko orduan parte hartzea.
- _ Departamentuen pixkanakako deszentralizazioari bultzada ematea, eginkizunen kudeaketa hobea lortze aldera.

Une honetan, besteak beste, Errepide eta Ekonomia departamentuetan garatzen ari diren beste kalitate-prozesu batzuetan esku hartzen ari gara; baina helburua departamentu bakoitzak edozein sistematako (ISO, EFQM eta abar) kalitate-ekintzak burutzea da, arestian aipatutako helburuak bete ahal izateko.

EPE 2001

Aurreko urtean, 2001eko Enplegu Publikorako Eskaintzaren deialdia egin zen. Guztira 283 plaza, horietatik 123 barne-sustapenez betetzekoak, 65 deialditan.

Lehen fase batean, 60 deialdi egon ziren 212 plaza betetzeko. Deialdiak 2001eko uztailean argitaratuta, enplegu-eskaintzaren zenbait kudeaketa-helburu planteatu ziren. Helburuok bete izan dira eta, batzuetan, gaingitu ere bai. Horietako bat 2002. urtea amaitu baino lehen deialdi guztietako praktiketako funtzionarioak izendatzea izan zen. Helburu hori ere bete zen.

2002ko uztailean eskaintzaren bigarren fasea argitaratu zen; hau da, hasieran aurreikusitako 5 deialdiak 74 plaza (deialdi horietan hutsik geratutako plazak sartu dira) betetzeko eta beste 6 deialdi gehiago lehen fasean hutsik geratu ziren plazak betetzeko.

2003ko apirilean bukatuko da bigarren fasea 11 deialdietako praktiketako funtzionarioak izendatuta.

PREBENTZIO, KALITATE ETA INGURUMEN SISTEMEN KUDEAKETA AUTOMATIZATZEKO PROIEKTUA

Aldundian *Laneko Arriskuen Prebentzio programa* garatzeko orain 2 urte osatutako lantaldeak ateratako ondorioetako bat *prebentzioaren eskuliburuko kudeaketa-prozesuak, prebentzio-planen eta horren ondoriozko ekintzen prozeduren eskuliburuko kudeaketa-prozesuak, zuzentzeko ekintzenak eta abarren kudeaketa-prozesuak automatizatu* beharra izan zen.

Prozesu hauek ingurumen eta kalitate-kudeaketaren sistemetako baliokideekin (*kalitatearen eskuliburua, etengabeko hobekuntzarako ekintzen prozeduren, kudeaketaren, eta jarraipenaren eskuliburua*) duten antza dela eta, lantaldea kalitate-prozesuetan inplikaturako pertsonekin handitu zen eta ondorio batera heldu ziren; hots, prozesu horiek guztiak egitura erkide batekin automatizatu behar zirela.

Horrela bada, 2002ko maiatzean, IZFERen lidergoan, proiektuaren kudeaketa-taldea eratu zen. Automatizazio horrekin, kudeaketa izugarri erraztuko da eta departamentu egin beharrean batera egingo denez, asko aurreztuko da. Gainera, horrek prozesu horiek guztiak hobeto homologatzea ahalbidetuko du.

BESTE JARDUERA BATZUK

Laneko arriskuen prebentzioaren kudeaketa

2002. urtearen erdialdetik Aldundiak duen *Laneko Arriskuen Prebentzio Programa* pixkanaka-pixkanaka ezartzen joan da.

Prebentzioaren kudeaketa-prozesuaren etengabeko aurre-erapen horrek une garrantzitsua izan zuen 2002ko uztailean, *Lehendakaritza Departamentuko Prozeduren Eskuliburua* onartu zenekoa, hain zuzen. Eskuliburua horrek UNE 81900 EX arauaren egungo aurreikuspenak jaso ditu.

Lehendakaritza Departamentuko Prozeduren Eskuliburua gainerako departamentuetako *prozeduren eskuliburu*etarako oinarria izan da. Hala ere, departamentuek, euren berezitasunen arabera, ekarpenak egin ahalko dituzte. Agintaldia amaitu aurretik, eskuliburua guztiak onartuta egon beharko dute eta benetan ezartzeko pare bat urte beharko da.

Prestakuntza. Artezkaritzako prestakuntza. Hizkuntzak

Aldundiko pertsonala prestatzeko arloan, jarduera hezitzaile guztien aurretik prestakuntza-beharrak aztertzeko analisia edo diagnostikoa egin behar dela dioen planteamenduari eutsi egin zaio. Zerbitzu eskatzaileak egin behar du analisi hori, gaur egun garatu behar diren proiektuak eta etorkizunerako aurreikus daitezkeenak kontuan hartuta.

Planteamendu hau zerbitzu guztiek euren erantzukizunetako baten moduan euren egiten ez duten artean, planteamendua euren egiten duten zerbitzuentzako prestakuntza-jarduerak lehenesten dira.

Artezkaritzaren kudeaketa modernoan bikintasunerantz aurreratu behar dela eta, artezkaritzaren garapenean prestakuntza praktikoa bat jarri da abian eta horretan artezkaritza bakoitzak badu bere tutorea. Emaitzak oso onak izan dira. Proposatutako helburua 6 hilabeteko epe bakoitzean, 10etik 15era bitarteko prestakuntza-kopurua egitea da, bakoitzak bere tutorea duela; beti ere, horretarako eskabide nahikoak egonez gero. Eskaerak eskaintza gainditzen badute, eskabide bat baino gehiago egin dituzten zerbitzuetaoak lehenetsiko dira, ingurune bereko pertsona batek baino gehiagok zuzendarientzako garapen-ikastaro hau egiteak duen efektu biderkatzaileagatik.

Azkenik, ingelesa eta frantsesa ikasteari dagokionez, hizkuntza horiek benetan erabiltzeko gero eta behar handiagoa dauden inguruneak lehenesten ari dira. Benetan ikasteko epea 3 edo 4 urtekoa izateko konpromisoa hartuta, ez dira finantzatzen ikastaro erdian bertan behera utzitakoak, ezta errendimendu eskasak ere.

Suhiltzaile zerbitzua

Suhiltzaile Zerbitzuan hutsik zeuden plazak betetzeko, pertsonal berriaren hautapena eginda, prestakuntzari ekin zaio:

| | |
|---|----|
| Sarjentuak | 2 |
| Kaboak | 11 |
| Suhiltzaileak | 16 |
| Larrialdien koordinaziorako laguntzaile teknikoak | 3 |

Korostiko (Legazpi) suhiltzaileen etxea guztiz ekipatu da. Halaber, suhiltzaileen etxeetako instalazioen telekontrolaren bidezko automatizazio zentralizatua jartzeko prozesua bukatu da eta suteen aurkako hezgailu ez-kutsagarria egiteko azterlana amaitu da.

Urtarrilaren 1etik abuztuaren 31ra, Suhiltzaileen Foru Zerbitzuak 1.740 ezbeharretan esku hartu du, aurreko ekitaldiko aldi berean, ordea, 1.802 izan ziren.

Ezbeharren benetako kopurua heldu den lehen suhiltzaileen etxea soilik kontuan hartuta

| | S U H I L T Z A I L E E N E T X E A | | | | | | | | |
|----------------|-------------------------------------|-----------------|-----------------|---------------|--------------|-----------------|----------------|---------------|-----------------|
| | ZUBILLAGA Kop. | BIDASOA Kop. | GOIERRI Kop. | KOSTA Kop. | ORIA Kop. | KOROSTI Kop. | ARRATE Kop. | UROLA Kop. | GUZTIRA Kop. |
| Alarma faltsua | 6 | 28 | 6 | 7 | 26 | 3 | 16 | 4 | 96 |
| Sutea | 135 | 238 | 60 | 80 | 152 | 41 | 71 | 53 | 830 |
| Salbamendua | 108 | 241 | 60 | 84 | 142 | 29 | 75 | 51 | 790 |
| Lag. Teknikoa | 6 | 9 | 3 | 1 | 1 | 1 | 2 | 1 | 24 |
| GUZTIRA | 255 | 516 | 129 | 172 | 321 | 74 | 164 | 109 | 1.740 |

Prebentzioari eta su itzalketari buruzko ikastaroak

| Enpresak | Ikastaroak Parte hartzaileak | |
|----------------------------|------------------------------|--------------|
| Zerbitzuak emandako | 14 | 227 |
| Zerbitzuaren laguntzarekin | 47 | 907 |
| Gai arrisk. gida baimena | 19 | 317 |
| GUZTIRA | 80 | 1.451 |

Bisitak

Hartutako bisitak: ANFAS (Nafarroa), Jakintza ikastola (Ordizia), Izaskun, Eskolapioak eta San Jose ikastetxeak (Tolosa) eta San Jose eskola (Hondarribia).

| | Bisitak | Bisitariak |
|----------------|-----------|------------|
| GUZTIRA | 12 | 231 |

Suhiltzaileen prestakuntza

Ikastaro motak:

Suhitzaile berriak, kaboak eta sargentoak trebatzako (2002ko EPE1) eta bitarteko suhiltzaileak trebatzeko. Prebentzio eta Esku-hartzeko teknikari laguntzaileak trebatzeko. Nafarroako suhiltzaileak trebatzeko (Treatokia).

| | Ikastaroak Parte hartzaileak | |
|----------------|------------------------------|------------|
| GUZTIRA | 6 | 104 |